

Adibidez, gaur egun sare sozialak proiektuak eta berrikuntza teknologikoak zabaltzeko aukera ezin hobe eskaintzen dute. Marka eta enpresa askok erabiltzen dituzte, beren ideia edo produktuak promozionatzeko eta interesa sortzeko. Gure kasuan, sare sozial nagusietan kontuak zabalduko genituzke, hala nola Instagram, X (lehen Twitter bezala ezagutzen zena), TikTok... eta bideo erakargarriak igoko genituzke gure dron autonomoek itsasoa garbitzeko duten proiektua promozionatzeko.

Argitalpenen bidez, publikoarekin konektatzea izango da gure helburua. Gure argitalpenetan hurbiltasun eta parte-hartze sententzia transmitituz, ikusleei erakutsiko diegu nola dron adimentsuek hondakinak biltzen dituzten, eguzki-panelak erabiliz autonomian funtzionatzen duten eta birziklatze-plataformetara eramaten dituzten, ingurumenaren alde ekintza eraginkorra egiten dela erakutsiz.